


BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1994, abenduak 24



**Luis
Ugalde**

Caracaseko Unibertsitateko Erretorea

BEHERAPENAK!!



BEHERAPENAK!!



egizabal



LEVI'S 501 XX USA

PEYTON

PANAMA JACK



BERGARAKO OSASUN Gida

ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) ☎ 76 43 29
- ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaitari ofiziala). Telefono mobila ☎ 908 77 17 32
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) - Iribar baserria ANTZUOLA. ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 90 8 876 847 - Koldo Eleizalde, 28. ☎ 76 27 97

ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre, 1 behea. ☎ 76 27 95
- BERGARA HAGIN KLINIKA - Bidekurutzeta 6, 2. ☎ 76 05 77
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri, 5 behea. ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale 1, 1.C. ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behea ezk. ☎ 76 07 66
- GIPIZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E.M. - S. Arrieta 3, 2.B. . ☎ 76 38 54

FISIOTERAPEUTAK:

- ARZAK Miren (Reeducacion Postural Global) - Masterreka, 7 4.C. ☎ 76 43 71

GINEKOLOGOA:

- SERRANO Doktorea - Ramon María Lili. ☎ 76 59 39 - 72

MASAILARIAK:

- AZPEITIA Iruñe - Telesforo Aranzadi 1, 2. ☎ 76 14 08
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain 5, 2.E. ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain, 3 behea. ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka 7, 3.A. ☎ 76 51 18

MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain 3, 1.B. ☎ 76 37 50

LARRUAZALAREN GAIKOTASUNAK:

- ARISTONDO F.J. (Gaitz benereokak) - Barrenkale, 16 1 ☎ 76 18 81

PEDAGOGOAK:

- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia, psikomotrizitatea) - S. Arrieta 3, 2.E. ☎ 76 26 42

PODOLOGOAK:

- ALTUBE Eurne - Simon Arrieta, 2. ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak, z/g. ☎ 76 41 32

PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin Plaza 2, 1.ezk. ☎ 76 26 64

PSIKOLOGOAK:

- FERNANDEZ Jose Ramon (Psikologo klinikoa) - Ramon María Lili, 2. ☎ 76 59 72
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotrizitatea). ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA Marisa (Psikologo klinikoa). ☎ 76 30 76

Z E B E R R I D A ?

MILA AGIRREZABAL

Udal Liburutegiko arduraduna

- Azken Plenoan liburutegia informatizatzea onartu zen...

- Bai, horrela da. Eusko Jaurlaritzaren plangintzaren arabera liburutegiak sare informatiko batean sartzeko asmoa dago. Biztanle kopurua kontutan izanik, Eibarrek eta Arrasatek lehentasuna izan zuten eta orain Oñati eta Bergarari heldu zaigu ordua. *Absys* izeneko programa erosteko Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza ematen du eta materiala, berriz, Udalaren kontura doa [Plenoan 1.600.000 pezetako aurrekontua onartu zen]. Urtarrila edota otsailerako martxan jartzea espero da.

- Zer suposatuko du guzti horrek?



- Lana erabat errezutuko da eta jendeak liburuari dagozkien kontsultak egin ahal izango ditu ordenadoreak erabiliz, liburutegiak bata bestearekin komunikatuta egongo dira, liburuak hobeto sailkatuta izango dira, prestamoak hobeto kontrolatuko dira... Denak dira erreztasunak.

"Sare informatiko berdinean sartuko gara inguruko liburutegiak"

I T U R R I O N E T I K

Begarako pintore eta artistak biltzeko elkarte sortuko da

Begarako hainbat pintorek bultzatuta, herriko margolari eta beste arlotako artistak elkarte batean biltzeko asmoa dago. Dagoeneko "Bear" elkartearen zuzendaritza osatzeko batzar bat egin da eta Luis Laskurain izango da elkartearen presidentea. Josuren Murgizu elkartearen idazkaria izendatu dute eta bokalak, berriz, Bigen De Pedro eta Dani Laskurain izango dira. Printzipioz, esan bezala, elkarte ez da margolariei murriztuko, interesa duen beste edozeinentzat zabalik egongo baita. Elkarte honen bitartez erakusketak, ikastaroak, bidaiak eta beste hainbat ekitaldi bultzatu nahi dira.

E S A N D U T E

"Eskoletan ematen den porrota dela eta egindako ikerketen ondoren, hezkuntza munduan gaur egun onartua dago eskolak ezezik familiak eta inguruak duten eragin itzela haurren garapen eta ikasketetan.

Beraz, derrigorrezkoa jotzen da eskoletan egin beharreko aldaketek gain, eskolaz kanpoko ingurune hori aldatzea, haurren garapena lortu eta ikasketak burutzeko"

RUFINA OLASAGASTI
Kultur Jestorea
ARRASATE PRESS

"Zenbait argazkilariren helburua, jendeak Indian edo Perun egon direla jakitea da baina argazkiak ikusi eta gero oso balore artistiko eskasa dute. Gosez hiltzen ari den ume bati argazki bat ateratzea ez da beste munduko ezer; nire helburua ez da ahalik eta erakusketa gehien egitea, ondo pentsatutako argazkiak behar den momentuan erakustea baizik"

PEDRO LUIS ORMAZABAL
Argazkilaria
ARRASATE PRESS

BERRIGARALDE JAUREGIA
48015 Bergara
Telefonoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:
BERRIGARA Elkartea.
Bergara, 13 Bergara.
Telefonoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:
Mila Agirrezabal

Redakzioa:
Mila Agirrezabal
Mila Agirrezabal

Maketazioa:
Mila Agirrezabal
Mila Agirrezabal

Publizitatea:
Mila Agirrezabal

Harpidetza:
Mila Agirrezabal

Postu zuzenketak:
Bergara Plazaola

Redakzio kontseilua:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal

Elkarlanean:
Mila Agirrezabal



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du


**JUNIOR**

Larunbata: 17.00.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30.

Asteartea: 19.30 (Ikuslearen eguna).

**ROJO**

Ostirala: 22.30.



Zinea

▼▼ **Ivan Reitmanek** (*Los cazafantasmas* edota *Dave, presidente por un día*) zuzendutako komedia honetan, **Arnold Schwarzenegger** haurdun geratzen zaigu!! *Alex Hesse* (**Schwarzenegger**) eta *Larry Arbogast* (**Danny DeVito**) mediku eta ikerlariak dira; *esperana* drogarekin esperimentatzean, ustekabea etorriko da... **Emma Thompsonen** (*Lo que queda del día*) partaidetzarekin.

▼▼ **Krzystof Kieslowski** zinegile poloniarrek (argazkian) *Tres colores* izenburuko trilogia burutu du agur modura. *Azul* eta *Blancoren* arrakastaren ondoren, bere azken filma omen den honetan gaur eguneko gizarteari buruzko erreflesioa planteatzen digu. **Irene Jacob** eta **Jean Louis Trintignant** protagonista lanetan.

Bergarako pintore eta **marrazkilarien** erakusketa inauguratu zen ostiralean Kultur Etxean. Luis Abajo zinegotziak orainarte egindako lanagatik zorionak eman ondoren, bide beretik jarraitzeko animoak eman zizkien bertan bildutako artistei. Guztira, 35 artisteren horrenbeste lan ikusi ahal izango dira igandera arte.

Deiak

▼ **Bideoa.** JARDUNEK antolatuta, haurrentzako bideo emanaldia larunbatean: "*Batman*", 11etan Kultur Etxean.

▼ **EAJren** Ez Ohizko Uri Batzarra asteazkenean, hilak 4, 8etan Batzokian.

▼ **Margoak.** Bergarako pintore eta marrazkilarien erakusketa Kultur Etxean igandera arte.

▼ **Zeinu hizkuntza** ikastaroa Bergarako Arans-Gui eskolan. Izen-ematea 5.000 pezeta. Argibide gehiago 76 27 03 telefonoan.

▼ **Ion Marco**ren "*Miserableak*" ikuskizunari buruzko argazki erakusketa Nahikarin.

Ogia

▼ **Igandea 1:** Ohizkoa den bezala, Urteberri eguna dela eta, igandean ez da ogirik izango.

GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 30:** Puy/Español.
- ▼ **Larunbata 31:** Guallar/Corcuera.
- ▼ **Igandea 1:** Guallar.
- ▼ **Astelehena 2:** Estella.
- ▼ **Asteartea 3:** Mozos.
- ▼ **Asteazkena 4:** Camacho.
- ▼ **Osteguna 5:** Puy.

PINTURAS BERGARA

PB

Aranerreak, 32 behea. BERGARA.
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • GARBIKETAK •
• APAINKETARAKO PINTURAK • ERROTULOAK • etab...

Komikiak ikusgai

JARDUN Elkarteak antolatutako Komiki Lehiaketan aurkeztutako lanak ikusgai daude Pol-Polen

Gaur ostirala Setan JARDUN Elkarteako Kultur Taldeak antolatutako III. Komiki Lehiaketako sariak banatzekoak ziren Pol-Poleko erakusaretoan. 18 urtetik gorakoen artean Patxi Gallego 21 urteko errenteriarrek irabazi du lehen saria (35.000 pezeta) "Txakur euskaldun baten memoriak" lanari esker. Bittor Rodríguez bergararrak (20 urte) bigarren saria (25.000 pta.) eskuratu du "Leku berezi bat" lanarekin eta hirugarren saria (15.000 pta.), berriz, Alex Ugalde (21 urte) bergararrantzat izan da "Zoritxarra" lanagatik.

14 urtetik 18ra bitarteko artean bergararrak nagusitu dira: Unai Azkaratek (14 urte) irabazi du 15.000 pta.ko lehen saria "Bergaran" izenburuko lanarekin eta Ion Alvarez eta Gorka Ortegaren "Armiarmaren gaztelua" k 2. saria (10.000) merezi izan du; 3. tokian Aitor Zubiaurre, Nora Bastida eta Aitor Garate elgoibartarrak sailkatu dira "Haurtxo polita" lanarekin, 8.000 pta.ko saria jasoko dutelarik.

Azkenik, O.H.O.ko 6., 7. eta 8. mailako ikasleei

zuzendutako kategorian, Oihan Vega eta Ion Gurutz Biterik irabazi dute "Mariano arbitroa" (10.000 pta.ko saria) eta 2. saria (6.000 pta.) Zigor Aukar eta Iosu Gonzálezek irabazi dute "Banku atrapatzaile torpeak" lanagatik.

Guztira 27 komiki aurkeztu dira hirugarren edizio honetara: 9 nagusien kategorian, 16 lan erdiko taldean eta bi besterik ez lehen taldean. Epaimahaiak marrazki aldetik komiki onak aurkeztu direla goraipatu du, testo aldetik akats dexente izan arren. Testoak hobeto landu beharra ikusi dute epaimahaia osatu duten Iosune Iñarrak, Karlos Galarragak eta Esteban Lazkanok.

Sariak banatu ondoren, lan onenen erakus-



"Txakur euskaldun baten memoriak", Patxi Gallego 21 urteko errenteriarren komikiaren biñeta bat.

keta zabalduko da Pol-Poleko erakusaretoan bertan. Erakusketa ikusgai izango da urtarrilaren

8ra arte, arratsaldeko 7etatik 9etara. Beraz, komikiak ikusteko aukera duzue egun hauetan.

• **Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.**
• **Masajeak, solariuma, perikura, estetika...**

Josefina

Espaloia, 4 ☎ 76 35 38

LARRAÑAGA eta ZUBIA Banatzaileak

Errioxako ardoa, olioak, esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

Kizkur

ILEAPAINDEGIA SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

BOLSOS BERGARA, S.L.

✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.

✓ Denetariko konfekzio industrialak

✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaiz, 1 BERGARA

Tfnoa: (943) 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

B B T M

Gauzak argitu nahian

Pasa den astean, abenduaren 13aren geroztik, egunkarietan irakurri ahal izan da fede onez horrela adierazita seguruenik, 1986an hasi eta azken zazpi urteetan akusazio bezala inplikatuak egon geran epaiaren emaitza.

Dena den, irakurri dugun bertsioa ez denez osoa eta ematen den ikuspegia alde batekoa, partziala, eta egia distorsionaturik azaltzen duena, ez da nekeza bere jatorria nondik norakoa den asma-zea...

Sententzia hau oraindik joan den asteak izanik Berrigara ale honetan azalpen labur batzu besterik ez ditugu egingo:

1.- Juizio hau, akusazio partikular moduan, geuk hasi genuen eta are gehiago, 1986an hasita akusazio partikular izaten jarraitu izan ez bagenu, juiziorik ez zen ospatu ere egingo.

2.- Fiskalak egindako akusazioa geuk egindakoaren berdina zen, honek ere Raul C., Donostiako Kutxa Munizipaleko zuzendari izandakoa, eta Gipuzkoa-Donostia Kutxa, hau erantzule zibil subsidiario gisa, akusatzen zituelarik. Ministerio Fiskalak, berriz, ez zuen gure aurka akusaziorik egin.

3.- Epai hau Madrileko Epaitegi Gorenaren aurrean errekurritu dugu eta ministerio fiskalak ere bere aldetik egingo

duen errekurtsua iragarri du.

4.- Gai honekin lotuta Komertzio Korredore bat ere inplikaturik aurkitzen da, honen aurka ere aurre-dilijentzia inkoatuko da kasu honetan egindako bere lan irregularrengatik.

5.- Sententzia hau aztertu eta guregan eduki duen eragina asimilatzen dugunean gertatutakoa zehatzago denon jakinean ipiniko dugu. Berrigara zein beste komunikabideen bidez, pasatzen ari garen esperientzia hau guztientzat argigarri izan daitekeelako.

Besterik gabe, aukera hau ez genuke galdu nahi guztioi Gabon eta Urte-berri zorionsuak opatzeko eta gure eskerrik sentituenak gurekin bat egin duzuen guztioi emateko.

MAITE MUJICA ETA ANTHONY
J. STUTTER

Urte berri on!!

Irakurtzen ari zaren alea urteko azkenena da. Honen ondoren astebeteko oporrak hartuko ditugu. Beraz, datorren ostiralean, Errege egunean, ez da BERRIGARARIK kaleratuko. Horrela, bada, urtarrilaren 13an helduko da zure etxera 1995eko lehen BERRIGARA.

Bestalde, BERRIGARA GIDA 95, Bergara, Antzuola eta Elgetako zerbitzu publiko, kultur edota kirol elkarte eta merkataletxe, lantegi edota profesionalen telefonoak biltzen dituen liburutxoa, Errege bezperan helduko zaizu etxera. Opari bikaina!!

Bitartean, hartu ezazu gustora ale hau eta urte berri on izan dezazula.

BERRIGARA

Tiira biraka



◆ **Bertso saioa**

JARDUN Elkarteak antolatutako bertso saioa izango da gaur 22.30etan Zabalotegiko aretoan. Juan Luis Lekunberri pianujolearen laguntzaz, Aitor eta Jon Sarasuak "Fauna txiki bat bertso berritan" izeneko saioa eskeiniko dute. Sarrerak 500 pezeta balioko du.

◆ **Arrantza lizentziak**

Datorren denboraldirako arrantza lizentziak egin ahal izango dira Oilagorra Ehiza eta Arrantza Elkartearen hurrengo urtarrilaren 23tik aurrera, 19.30etatik 20.30etara.

JAIOTAKOAK

- Aitor Zengotitabengoa Iraegi**
Abenduak 13
- Iosu Cordobilla Sánchez**
Abenduak 18
- Xabier Berasategi Oyanguren**
Abenduak 21
- Saul Diez Millán**
Abenduak 26

HILDAKOAK

- Luciano Basarrate Arrieta**
Abenduak 27, 77 urte
- Justina Fernández Maillo**
Abenduak 27, 65 urte

Maltzaga-Urbina: proiektua herriz-herri erakutsiko da

Bergaran otsailaren 10etik 19ra ikusi ahal izango da

Joan zen abenduaren 22az geroztik, Arrasaten ikus daiteke Maltzaga eta Etxarri lotuko dituen autopistaren proiektua. 700 metro karratuko azalera duen karpa batean, autopista nondik joango den azaltzen da. Horretarako, bideo, panel, maketa, plano eta abarrak jarri dira. Erakusketa, Eibar, Donostia, Gasteiz eta Bergaran ere ikusi ahal izango da eta Bergaran otsailaren 10etik 19ra bitartean izango da.

Debasa erakundeak aurkeztutako proiektuan jasotzen denaren arabera, autopistak 44 kilometroko luzera izango du eta 9 tunel eta biadukto ugari egingo dira kalte ekologikoa ahalik eta txikiena izan dadin. Osintxu, San Martzial, Etxezarreta eta Arlabanen, esate baterako, tunelak egingo dira.

Bergaran bi tunel egingo dira, bat Osintxu inguruan (Osintxu eta Soraluze artean) eta bestea San Martzial azpitik joango dena kilometro



Martxoaren 6ra arte autopistari alegazioak egin ahal izango zaizkio.

bateko luzerakoa. Inguru horretan autopista erre-karen ezkerretatik joango da, bariantearen gainetik, eta Ipintza base-riaren parean edo sartu eta San Kristobal inguru-an irtengo da.

Finantzaketa mistoa

Autopistak 80.000 eta 100.000 milioi pezeta arteko kostua izango du. Finantzaketa mistoa izango da: ekimen pribatuak eta erakunde publikoek ordainduko dute erdiba-

na. Erakunde publikoen partetik, % 42,5 Europa-ko fondoetatik lortu nahi da eta gainontzeko % 7,5 Euskal Autonomi Elkar-terko instituzioek jarriko lukete. Bidesariari dago-kionez, Bergara eta Arrasate artean ez da peajerik ordainduko eta Maltzaga eta Etxarri arteko 44 kilo-metroak egitearren 400 pzta. inguru ordaindu beharko da.

Trenbide zaharra ego-kitu eta bizikletan ibili eta pasiatzeko bidegorria ere egingo da.

Jarriaren manifestazioa

Aurreko ostegunean emandako prentsaurrean Jarrai Gazte Erakundeak dei egin zuen urtarrilaren 5ean 19.30etan Bergaran Ertzaintzaren aurka egingo den manifestazioan parte hartzeko. Jarraiko kideek salatu egin zuten Ertzaintzak gazteria, ikaslegoa, euskara edota intsumisioaren aurrean azkenaldian azaldu duen jarrera. Horrela "iazko Gaztetxearen desalojoa eta "Bizkai", "Txerra", Jabi eta "Etxebe" berriko gazteak edota hainbat intsumisoren atxiloketak" gogoratu zituzten. Euskararekiko ere errespetu gutxi daukatela aipatu zuten. Urtarrilaren 5eko manifestazioa "giro alai eta erreibindikatiboan egin nabi dela" azpimarratu zuten.



◆ **Kiroldegia eta igerilekuak itxita**

Labegaraietako Kiroldegia itxita izango da bihar larunbata, hilak 31. Igerilekuak, berriz, bihar larunbata 13.30etan itxiko dira, eta igandean, urtarrilak 1, eta ostiralean, hilak 6, itxita egongo dira.

◆ **Bizarzuri gaur Bergaran**

Gaur, abenduak 30, arratsaldeko 7 t'erdietan Bizar Zuri etorriko da Bergarako haurren kartak jasotzera. Ibilbidea honako hau izango da: Burdiñate, Barrenkale, San Martin plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekale, Arruriaga eta Burdiñate.

◆ **Erregeen kabalgata hurrengo ostiralean**

Datorren ostiralean, hilak 5, Erregeen Kabalgata helduko da Bergarara arratsaldeko 7 t'erdietan. Erregeek eta beren laguntzaileek ondoko ibilbidea beteko dute: Mizpirualde, Mizpildi, Artekale, Arruriaga, Barrenkale, San Martin Plazan, Bidekurutzeta, San Pedro eta Mizpirualde.

◆ **Bergara K.E.ko kiniela**

Bergara K.E.k antolatutako kinielan 31.000 pezetako botea dago urtarrilaren 8ko ihardunaldirako. Guztira 7 partidu ezberdinetako zeinuak asmatu beharko dira: Athletic-Real, Real Madrid-Barcelona, Betis-Deportivo, Español-Atl. Madrid, Mérida-Eibar, Osasuna-Extremadura eta Zarautz-Bergara. Boletoa hainbat tabernetan bete daitezke (apostu bakoitzak 100 pezeta).



Plazan bazkide txartelak jaso eta abizenak euskal grafiara aldatzeko aukera izan da.

Jarduneko bazkide kanpaina erantzun ona jasotzen ari da

Jende ugari astean zehar antolatutako ekitaldietan

Jende dexente izan da bazkide kanpaina dela eta JARDUN Elkar-teak astean zehar antolatutako ekitaldietan. Astearte gauean Musika Eskolako Jazz Taldeak kontzertu arrakastatsua eskeini zuen Pol-Poleko aretoan; asteazkenean, berriz, Jon Lazkanok ere jendetza ugari erakarri zuen Pakistani buruz emandako diapositiba emanaldian. Bertan, Jon Lazkanok, diapositiba benetan erakargarriez lagunduta, Pakistaneko herriari eta mendiei buruzko azalpenak eman zituen.

Era berean, bazkide kanpainak aurrera jarraitzen du. Astean zehar bazkide txartelak betetzeko aukera izan da Plazan. Bertan Jarduni buruzko informazioa banatu zaie herritarrei eta, aldi berean, euskal abizenak euskal grafiara aldatzeko

eskakizunak egiteko aukera ere egon da. Jardunen ordezkarien hitzetan, "kanpainak erantzun ona jaso du orain arte eta kanpainaren helburuak lortzen saiatuko gara. Beste 100 bat bazkide lortzea gustatuko litzaiguke".

Berrigarako harpidedun guztiei zorion txartel bana bidali zaie. Tarjetaren atzekaldean bazkide txartela betetzeko aukera dago eta txartelak Pol-Pol, Kortazar eta Antxonin utzi ahal izango dira.

Bestalde, euskal abizenen kanpainak urtarrilaren 31ra arte iraungo du eta interesatuek Jardun Elkartera jo beharko dute. Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia bat besterik ez da behar. Ondoren, JARDUNen jaso behar diren agiri batzuk sinatu beharko dira.

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak. Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Angiozarrerako bideko bidegurutzeta hobetzeko lanak

Datozen bi hilabetetan errotonda bat egingo da bertan

Akaitza enpresa Angiozarrerako bidea hasten den lekuan bidegurutzeta hobetzeko lanak egiten ari da. Orain arteko bidegurutze horrek gidarientzat suposatzen zuen arriskua kontutan izanik, bertan bi karriletak errotonda bat egitea erabaki da. Udalak Diputazioari bidegurutzeta hori hobetzeko eskakizuna egin zion eta, beraz, Diputazioa izango da lanen kostuaren kargu egingo dena.

Angiozarretik jaitsi eta eskumatarara jotzeko zeuden zailtasunak (pendiente aldaketa nabaria zego-

en) batetik eta ezkerretara jotzeko zegoen bisibilitate eskasa izan dira lan hauek egiteko arrazoi nagusiak.

Behin obrak burutuz gero, Angiozarretik erreztasun haundiagoak izango dira bai Bergararako, bai Arrasaterako norabidea hartzeko.

Dagoeneko Akaitza enpresak lanean dihardu, terrenoa mendi aldera zabaldu da eta datozen egunetan errotonda egiteko lanak hasiko dira. Aipatutako lanak bi hilabetean amaituta egotea espero da.



◆ Datozen eguneko filmak


Honako hauek izango dira datorren astean Novedades zinearetoan emango diren filmak: *Peligro inminente* urtarrilaren 6an (19.30etan eta 22.30etan), 7an (19.30etan eta 22.30etan), 8an (17.00etan, 19.30etan eta 22.15etan) eta 9an (19.30etan, ikusleagoaren eguna). Bestalde, *Una foca en mi casa* filmea urtarrilaren 6an eta 7an arratsaldeko 5etan eta urtarrilaren 8an goizeko 11.30etan eskeiniko da.

◆ Berrigara Gida 95

Bergara, Antzuola eta Elgetako zerbitzu publiko, kultur eta kirol elkarte, merkataletxe, lantegi edota profesionalen telefono zenbakiak biltzen dituen Berrigara Gida 95 datorren ostiralean, Errege bezperan banatuko da. Gidaren edizio berri honek 80 orrialde izango ditu. Guztira 5.200 ale kaleratuko dira. Berrigarako harpidedunei eta bertan agertzen diren guztiei banatuko zaie Berrigara Gida 95.

◆ Udal Liburutegia goizez zabalik

Kultur Etxeko Udal Liburutegia urtarrilaren 9ra bitartean goizez bakarrik izango da zabalik, Setatik ordubatera.



NAHIKARI

Taberna

Masterreka, 20 BERGARA

Ion Marcó

argazki erakusketa

Miserableak

Ikuskizunean etaratako argazkiak

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

Iraurgik eramán du aurtengo Eskaparate Lehiaketako lehen saria

Kanelak bigarren saria jaso du eta Eguiluzek hirugarrena

Kruz Gallastegiko

Iraurgi dendak irabazi du Udaleko Kultur Zerbitzuak antolatutako Eskaparate Lehiaketako IV. edizioa. Luis Abajo Kultur Zinegotziak 100.000 pta.ko txeketa eta plaka oroigarria entregatu zion larunbatean Iñigo Elorza Iraurgiko jabeari. 2. saria Espoloian dagoen Kanela dendak eskuratu du eta, hirugarrena, berriz, Irizar Ibilbideko Eguiluzentzat izan da. San Pedro kalean dagoen Gisasola burdinakidetak (iazko irabazleak) epaimahaiaren aipamena merezi izan du.

Epaimahaiak eskaparateen orijinaltasuna kontutan hartu izan du batipat, mezu garbi eta erakargarriak baloratuz, ikusleek argi izan dezaten zer den eskeintzen dena. Horrela, komertzio bakoitzak saltzen dituen produktuak erabiltzea baloratu izan du.

Egurra protagonista

Aurtengo saridunek horrela egin dute: Iraurgik atea, leihoak, koa-droak, parket zatiak, sa-



Estibaliz Alkorta, Iñigo Elorza (Iraurgikoak) eta Luis Abajo.

railak, izar elurtuak edota manikiak erabiliz apaindu du bere eskaparatea.

Altzari errustikoak

Kanelak ere bere ohizko opariak jarri ditu ikusgai; zeharkitutako egur batean plantxa zahar bat, ontziak, jarroiak eta figura ezberdinak ageri dira, urdina delarik eskaparatean nagusi den kolorea.

Leiho elurtua

Eguiluzek, berriz, bere eskaparatea, leiho

elurtu baten antzera jarri du. Lau zatitan banatuta, leihoaren atzekaldean,



Eguiluzek hirugarren saria lortu du eskaparate honi esker.

perfumeak, xaboiak, painueluak, makinillak eta horrelakoak aurki daitezke.

20 denda

Aurtengo edizioan 20 komertzio hartu dute parte, iaz baino 3 partaide gutxiago. Gogoratu aurreko edizioetan honako hauek izan direla komertzio irabazleak: Subijai (1991), Alga lurrindegia (1992) eta Gisasola burdinakidenda (1993). Kultur Zerbitzuak eta Bergarako Dendarien Elkarteak lehiaketa indartzeko asmoa azaldu dute.

*antzinako gauzak
dekoratzeko ideiak*
Rincones

dekorazioa

Irala kalea z/g BERGARA Tfnoa eta Faxa: 76 52 98

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

Txakur leren Euskadiko itzulian

Axen Garitano bergararrak eta gainontzeko espediziokideek aurrera darraite Ruan daren alde txakurrez tiraturiko trizikloekin egiten ari diren Euskadiko Itzuliarekin. As-teazkenean, Tuteran zirela, telefonoz hitze-gin genuen Axenekin.

Axen Garitano

- Nolako harrera izan duzue orain arte?

- Danetik izan dugu. Herri txikietan besteetan baino hobeto hartu gaituzte. Herri eta hiri haundiagoetan, berriz, ez dakit baina ez dugu hain erantzun ona jaso. Ez dakit informazio falta egon den udaletxeen aldetik, edota ustekabeen harra-patu ditugun baina gauzak ez dira behar bezala antolatuta. Pena bat...

- Ze herri portatu dira ondoen?

- Beno, zaila da baina Bernedo, Santa Cruz de Campezo, Lerin, Peralta, Alfaro etab. etortzen zaizkit orain gogora. Murchanten ere fenomeno joan da dena: 10 bat. Esaten dizut herri txikietako jendearen portaera ikaragarria izan dela: janaria, euren etxeak eskeini dizkigute... lagun asko egin ditugu. Txarto hobe ahaztea...

- Eta zenbat diru ja-



Urtarrilaren 11n, arratsaldean, harrera egingo zaie Bergaran.

so duzue orain arte?

- 2 milioi t'erdi. Espetro genuen baino askoz ere gutxiago [gogoratu ondoko kontu korrante zenbakia irekita dagoela Euskadiko Kutxan: 053-000.276-9].

- Gabon gaua non igaro zenuten?

- Lerinen, primeran

pasa genuen. Bertako Erresidentzian moja batzuk afaltzeko eman zituzten. Oso afari ona izan zen, langostino etabarrekin dotore afaldu genuen. Afalostean juergatxo bat ere egin genuen. Ez zaigu gogorregia egin Gabonak etxetik kanpo pasatzea.

"Herri txikietan besteetan baino askoz hobeto hartu gaituzte"

- Edurrik izan duzue?

- Behin bakarrik, Santa Cruz de Campezoa heltzen; sekula ez dut pasatu halako hotzik. Edurra aurretik zetorkigun eta eskuak izoztuta geratu zitzaizkidan; gero Gurutze Gorrikoekin erreanimatzen ibili ginen. Oso gogorra izan zen.

- Uste baino gogorragoa gertatzen ari da?

- Gogorra bai baina pertsonalki oso esperientzia ona. Batzuetan desanimatu egiten zara baina ni neu behintzat moral aldetik oso ondo nabil. Garbi daukat ahal den moduan iritsi behar garela. Txakurrek ere primeran erantzun dute.

- Anekdotarik?

- Beno pila bat. Orain burura bat etortzen datorkit; Peraltara ailegatu eta andra batek janari boltsa bat eskeini zidan. Nik zera erantzun nion: "Gracias señora, pero nos acaban de dar en el pueblo anterior". Azkenean poltsa hartu behar izan nuen eta lotsa ematen zidan bere aurrean zabaltzea. Zabalduta nuen zera aurkitu nuen: lenteja eta baba pakete bana eta olio pote bat....

- Laister etxean...

- Errege Eguna Donostian igaroko dugu eta Bergarara asteazkenean, hilak 11, helduko gara. Ea itzuliari amaiera ona ematen diogun...

IGARO

✓ Kosmetika eta oparigaiak

✓ Eder gela

✓ Bio Solariuma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa

Amillaga, 1 (B Pabiloia)

☎ 76 28 04

BERGARA

JAIALDI EKITALDIA argazkitan

**Mariaren Lagundiko aretoa
toperaino bete zen Olinpiada
Batzordeak antolatutako jaialdian**



Zeri begira egongo ote dira. Aretoa leporaino beteta ikusi ostean, ikaratuta geratu ziren erabat.



Aurkezleak
primeran aritu
ziren.
Telebistako
Goraintzi
saiorako
kontratua sinatu
omen dute
dagoeneko...



Faemino eta Cansado Pazkuetarako ekartzekotan omen dabilta... Ba, asteazkenean Bergaran izan ziren. Argazkikoak, autentikoak baino autentikoagoak.



Hara hor kupoitzarreko neska finak. Carmen Sevillak parada egin zuen Bergaran... Beheko argazkian, Jubilatuetako abesbatza.



Legedia

Bizilagunen komunitatea

- Zer dela eta finka administratzaileen beharra?

- Gaur eguneko erakuntza berriek gero eta instalazio eta zerbitzu amankomun gehiago dituzte (igogailuak, gas hartuneak, antena parabolikoak, su-itzalguilak...) eta hauen jabeak kopurua gero eta haundiagoa izan ohi da.

Hori horrela, eta bizilagunek gestioak ondo eramateko astirik ez dutelako edo, adituen zerbitzuak eskatu ohi dituzte.

- Zeintzuk dira ba bizilagunen komunitatean sortu ohi diren arazoak?

- Bi arazo mota dira ohizkoenak. Alde batetik, egoera legal edo administratiboak sortarazitakoak (kuoten banaketa irregularra, barne erregimenerako estatutu edo araudirik ez izatea, erregistratu gabeko akta liburuak erabiltzea, komunitatearen ordezkariak falta izatea...). Eta bestetik, instalazioen egoera eta zerbitzuen gestioaren jarraipe-

nik ezak sortarazitako arazoak ere aurki daitezke (fatxaden konponketa, Industria Delegazioak egin beharreko igogailuen aldikako ikuskapena, aseguruaren kontratazioa...).

Bizilagunek komunitatearen barruan dituzten eskubide eta betebeh-



ANDONI ARANZABAL
(finka administratzailea)

rrak ezagutzea ezinbestekoa da, horrek istilu asko ebitatuko lituzke eta.

- Ze komunitate motak eskatu ohi du finka administratzaile baten zerbitzuak?

- Orokorrean, bizila-

gun askok osatutako komunitateak, garajeen kasuan esate baterako, edo jabeen artean ados jartzea lortzen ez dutenak.

- Zer da finken administratzailea?

- Kolejiatutako profesionala izaten da; bizilagunen komunitatearen ordezkari, gestio-lanak eta aholkularitza zerbitzuak eskeintzen dituen pertsona bat.

Komunitatekoa ez den pertsona izaten denez, legearen arabera aztertzen ditu arazoak eta irtenbideak proposatzen ditu, beti ere komunitatearen interesei lehentasuna emanez.

Zerbitzuak kontratatzeko orduan aholkulari lana egin dezake, edo komunitatearen ordezkari izan daiteke erakunde publiko zein pribatuaren aurrean baimenak, dirulaguntzak, I.F.K., e.a. lortu behar direnean.

Egindako guztiaren berri ematen dio komunitateari, bai finantz egoerari dagokionean, hartutako akordioen bilakaera edota sor daitezkeen gorabeheren berri emanez.

- Eta azkenik, zein legek arautzen du Finken kontua?

- Batipat Jabetza Horizontaleko Legeak, Hiri Alokairuen Legeak (duela gutxi aldatua), Kode Zibila eta Lege Hipotekarioak.

"Bizilagunek komunitatean dituzten betebeharrak eta eskubideak ezagutzea ezinbestekoa da"



Pixkanaka-pixkanaka gehitzen doaz finka administratzaileak.

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza. Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz, 4 EIBAR
☎ 76 63 42 ARRASATE

Taberna Kafetegia EHIZTARIAK LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna
Zubieta, 26 BERGARA

Caracaseko Errektore den jesuita bergararra

Luis Ugalde

Luis Ugalde Bergaran jaio da, baina duela 38 urtetik Venezuelan bizi da. Bera Jesuita da eta gaur egun Caracaseko Andres Bello unibertsitateko errektorea da. Hiru karrera ezberdinetan dago lizentziatua eta Hego Amerikan bere lanagatik pertsonaia ezaguna da. Gabonetan Deustuko unibertsitatean izan da hitzaldi bat ematen. Hori aprobetxatuz elkarrizketa egin diogu.

- Nola joan zinen Venezuela aldera?

- Batxiler ikasketak Nafarroako Xabier eskolan egin nituen eta 18 urterekin Venezuela aldera bidali ninduten. Hasieran 10 urtez Bergarara etorri barik egon nintzen, baina orain lau urtero bueltatxo bat ematen dut. Halere izan ditudan ardurengatik asko tokatu zait bidaiatzea eta niretzat tren edo hegazkin guztiak Bergaratik pasatzen dira.

- Ze eginkizun zenituen Venezuelara joan zinenean?

- Orduan bertako apaiz gutxi zeuden eta hemendik bidaltzen gintuzten han laguntzeko. Hara joan eta bertan egiten genituen ikasketa guztiak. Lehenik eta behin filosofia eta letrak Kolonbian egin nituen, gero Venezuelan soziologia ikasketak eta ondoren Frankurten teologia egin nuen. Horrezaz gain, ikasketekin batera lan soziala ere egin nuen. Venezuelako %60a au-

zo pobreetan bizi da, "ranchitos" deitzen zaientan. Auzo horietan ari gara lanean. Asteaz gaur unibertsitatean ibiltzen naizen bitartean, aste-

buruetan auzo horietan lan egiten dugu.

- Auzo pobre horietan ze lan eramaten duzue aurrera?

- Ni nagoen auzoa duela 10 urte sortu zen. Emigrazioa hiriburura joaten da eta lur eremuak hartzen dituzte eta poliki-poliki auzoak eratzten dira. Hasieran ez zegoen ez eskolarik, ez ospitalik, ez ezer. Baina jenderan laguntzarekin pasa den urrian 500 haurrentzako eskola zabaldugenuen eta ospitale bat zabaltzeko asmotan ga-

biltza. Horrekin jendeak elkar lanean bizitzea ikasten du.

- Orduan, unibertsitateko lana eta laguntza soziala elkarrekin doaz, ez?

- Bai. Ni lau urtez izan naiz errektore eta ez bakarrik bizitza pertsonalean, unibertsitatean ere saiatzen gara, ikasleak konprometitu daitezen sektore popularrekin. Esate baterako, psikologia ikasle batek auzoetako eskoletan laguntzen du. Abogatuak berriz, aholkularitza juridiko debaldekoa ematen dute. Horrekin unibertsitatea errealitate sozialarekin lotzen dugu, bestela unibertsitatea marfilezko dorre bat bihurtu daiteke,

"Unibertsitatea errealitatearekin lotuta egon behar da, errealitateak sortzen dituen arazoak konpontzeko"



Asteaz gaur unibertsitatean egiten du lan eta asteburuetan auzo pobreetan laguntzen du.

gizartetik kanpo. Gaur egun 300 bolondres ditugu eta ikasle hauek astean 5 edo 6 ordu sartzen dute behartsuei laguntzen.

12.000 ikasleko unibertsitateko errektorea

- Ze ezaugarri ditu zuzentzen duzun Andres Bello unibertsitateak?

- 1.953an sortu zen eta 25 irakasle eta 153 ikasleekin hasi zen. Gaur egun 10 mila ikasle inguru ditugu 13 karreratan banatuta. Gero post graduatu kurtsoak ditugu eta horietan 2.000 ikasle daude. Duela 15 urtetik numeros clausus daukagu, aukeraketa selektiboa egiten dugu, baina beti ere termino akademikoetan. Unibertsitate pribatua izan arren gure politika beti izan da Diru faltagatik inor kanpoan ez uztea. Unibertsitatean sartzeko azterketa aprobaten duenak eta bitartekorik ez duenari laguntzak ematen dizkiugu.

- Zer da gogorragoa unibertsitatea zuzentzea ala herriko taldeekin lan egitea?

- Hasiara batean nahiago nuen lan soziala akademikoa baino. Errektore lana gustatzen zaidan arren, administraritza lanak denbora asko kentzen du. Azken finean enpresa bat zuzentzea da, gestioak denbora asko kentzen du. Halere niri beti gehiago gustatu zait jendearekin zuzenean lan egitea. Hori konbinatzea garrantzitsua da. Nire tesi da Hego Ameriketako unibertsitateko ikasketak errealitatearekin lotuta egon behar dutela, gero errealitateak sortzen ditu-



Bere karguengatik pertsonaia garrantzitsuak ezagutzeko aukera izan du. Argazkian Kanariar Autonomi Elkartearen presidentearekin, Jerónimo Saavedrarekin.

en arazoak konpondu ahal izateko.

1972an unibertsitatekin kanporatua

- Nola dago Hego Amerika gaur egun?

- Hego Amerikan gaur egun sekulako aldaketak daude, arazo izugarriekin. 80ko hamarkada Hego Amerikarentzat ekonomikoki oso txarra izan

zen eta ondorioz egoera soziala ere txarrera joan zen. Ezberdintasun sozialak areagotu egin dira eta bestalde politikoki gauzak asko aldatu dira. Lehen lan soziala egiten zuen edonor komunizatzen hartzen zuten. Gaur egun aldatu egin dira gauzak, arazo ekonomikoari aurre egitea da helburu nagusia. Horrekin pobrezia gutxitzea espero da. Ekonomia hobetu

da, baina oraindik arlo sozialean ez dira gauzak hobetu, langabezia tasak oso altuak baitira. Azkenik, gerrilak ere desagertzen doaz, konturatu baitira horrekin ez dela gauza asko lortzen eta gaur egun garrantzitsuena pobreen auto-organizazioa eta formazioa dela eta horretan ari gara lanean. Pixka bat Euskalerrian egiten zen auzo lanaren antzera.

- Zure konpromisuagatik arazoak izan dituzu, ezta?

- 1.972an unibertsitateki bota gintuzten komunista ginela eta. 1.989an La Vega auzoan bizi ginela, Caracaseko auzorik pobreenetarikoa, 3 egunetan sekulako matxinada izan zen eta ondoren Guardia Nazionalaren errepresioa jasan behar izan genuen. Gau baten hartu gintuzten eta atxilotu gintuzten, gerrilariak ginela esanez. Hori sekulako eskandaloa izan zen eta presidentek eta Barne Ministrariak barkamenak eskatu zizkiguten.

Gizon jantzia

Luis Ugalderen curriculumak ikusgarria da. Ikasketei dagokienez filosofia eta letretan, teologian eta soziologian lizentziatua da. Karguei dagokienez, 1979tik 1985era Venezuelako Jesusen konpainiako superiora eta 1985etik 1988ra Amerika Latinako Erlijiosoen Konfederazioko lehendakaria (kargu honi esker Vaticanora sarritan joaten zen). Gaur egun Caracaseko Andres Bello unibertsitateko errektorea da eta aurretik hainbat espezialitateetan irakasle izan da Venezuelako Andres Bello unibertsitatean. Baina bere curriculumean jartzen duenez, bere ogibidea soziologoa eta Jesusen Konpainiako apaiza da.

Zer egingo duzu Gabon Zahar egunean? Afalostean kalera irtengo al zara?




Javi Aranburu
22 urte, ikaslea

Etxean afalduko dut eta kanpakiak entzun ondoren, kalera irtengo naiz. Gustora pasatzen dut gaua baina nahiago dut Errege bezperakoa.



Elisabeth Bergara
28 urte, langabetua

Ohizkoa den moduan etxean afalduko dut, baina ez dakit kalera irtengo naizen ala ez. Irtetzekotan Bergaran geratuko naiz. Errege bezperako juerga hobea da.



Pablo Rodríguez
57 urte, langilea

Familiartekoeekin etxean afalduko dut eta afalostean kalera irtengo naiz urtea alaitu hasteko. Kalean dantzaldia edo kotiloia antolatu beharko litzateke.



María Pilar Fernández
24 urte, langilea

Bergaran bizi naizen arren, Puertollanokoa (Ciudad Real) naiz eta bertan igaroko dut Gabon Zaharra. Etxean afaldu ostean, diskotekaren batera joango naiz.



Iker Iburguren
18 urte, ikaslea

Etxean afalduko dut, ondo egoten baita afaria. Gero, kalera irtengo naiz goizaldera arte. Giro ona egoten da, baina Errege bezperan hobea beharbada.



Jone Aldasoro
42 urte, langilea

Etxean afalduko dut eta gaua ere etxean igaroko dut familia artean. Semea kalera irtetzen da, baina gu ez, guk etxean egiten dugu juergatxoa.



zumelaga
JATETXEA

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

IGANDETAN ZABALIK!!

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak
- Paper margotuak
- Moksetak eta tapizatuak

- Ibilgailuen Ikusketa Teknikorako (ITV) ibilgailuen azterketa
- Era guztietako konponketak, garbiketak...
- **ESKAINZTA BIKAINA: 4 gurpil erosi eta 2 ordaindu!!**

Mekolalde

Mekolalde auzoa. Tfnoa: 76 59 14

A
U
T
O
A
K



Jardun dezagun!!

Jardunen eskutik sortutako Berrigara aldizkariak 3.700 ale kaleratzen ditu eta 11.000 lagun inguruk irakurtzen omen du astero. Kopuru hauek gure herriko euskarazaleta-suna neurtzeko termometrotzat har balitezke, egoera pozgarria benetan.

Bestalde, Jardun Elkarteak 500 bazkide baino zertxobait gehiago ditu. Badirudi desproporzio dexente handia dagoela Berrigarako irakurle kopuruarekin konparatuz. Hemen futbol partiduetan bezala geratzen omen da. Zelai inguruan bildu ohi den jendetzatik gutxi batzuk besterik ez dira futbol elkarte bateko bazkideak. Beste guztiak, gehienak, zaletu arruntak, ikusle soilak.

Baina, euskararen normalizaziorako eta iraupenerako ez da nahikoa zaletu-ikusle edo irakurle soila izatea. Ez, horretarako jardun egin behar dugu. Beraz, kontua ez litzateke izan behar lan honetan diharduen elkarte batek zenbat bazkide gehiago behar dituen, baizik eta nolakoak.

Andoni ETXEBERRIA



Bergararen etorkizuna

Begarako herriaren etorkizunarekin arduratuta gaude-nak asko gara. Industriaren bidez garatutako herria izatetik, lantegi ugari itxi eta bere seme-alabei lana eta enplegua emateko gauza ez izatera iritsi da Bergara. Eskualde baten hiriburu, epaitegien egoitza eta salerosketa-gune izatetik, bigarren mailako herri bihurtu zaigu, inongo zerbitzu bereziturik ematen ez duena, ez erosketetarako, ez ikasketetarako, ez mediku, ez dantzaleku, ez kultur gintzazkorik ere. Ekimena galdu du Bergarak, gizarte-sormena. Herri bat ez da, nire ustez, etxe eta kale multzo soila, ez eta biztanle talde hutsa ere. Herri bat egunetik egunera eta belaunaldiz belaunaldi garatzen den proiektua da, une bakoitzean herria osatzen duten gizon eta emakumeek ausnartu, landu eta gauzatatuko egitasmoa. Horren ezean, herri bat izan daiteke lo egiteko leku aproposa, inon lan egin ezker, gazteek kanpora atera beharko baitute lan bila eta herrian ez baita egongo bertan bizitzeko beharrezko diren kultur ekintzak, atsedenerako aukerak eta haur eta gazteak hezitzeko eskolak.

Begararako badu oraindik gainbehera horri gailentzeko indarrak, joera horri buelta emateko kemenik. Horretarako ezinbestekoa da Bergara zer izatea nahi dugun eztabaidatu, herri-proiektu horren inguruan gizarte indarrak batu eta, eginkizunak finkatu ostean, eginbidean jartzea.

Ez dugu, halabaina, nahi adina denbora erabaki hori hartzeko. Luzatu gabe deliberatu behar dugu, aurreko belaunaldietako bergararrek egin behar izan zuten moduan. Guri dagokigu oraingoan.

Eneko OREGI

URTE BERRI ON!!



AKORT

- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorenzo, 7
behea.

☎ 76 50 39

JESUS J. GIRALDO ARGÜELLO

LISERIKETA APARATUA

*X izpiak, endoskopiak eta terapeutika endoskopikoa.
LAGUN-ARO, Foru Diputazioa, Prebisa eta partikularak.*

Loramendi, 6 Torre Eguzki 2.B ARRASATE

**LONBIDE
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

**IBAI
GRUAK**



ZERBITZUA EGUN OSOAN

San Juan, BERGARA.

☎ 908-67 68 21 (mobila)

900-59 59 59 - 40 06 59 (abonaturia)



Kontzertuan zehar Amaia Agirre eta Edu Muamendaraz dantzariak aurten, Seguran, Euskadiko Dantza Askatuko Txapelketan lortutako trofeoa eskeini zioten Udalarri. Argazkian, Victoriano Gallastegi alkatea eta Luis Abajo zinegotzia trofeoa jasotzen dantzarien eskutik.

Gabonetako estampa


Herriko talde musikalek arrakasaz betetako emanaldia izan zuten jandako ostiralean. San Pedro Parrokian toperaino zegoelarik, **Udal Musika Bandak, Aritzeta abesbatzak, Orkestra Sinfonikoak** eta **Bergarako Orfeoia**k beren errepertorioko hainbat lan eskeini zituzten. Azkenik, **Alfredo Glez Chirlaquek** zuzenduta, talde guztiak "Gabonetako estampa" (**Miguel Glez. Bastida**) jo zuten. Jendeak txalo zaparrada haundi batez agurtu zituen musikari guztiak urtean zehar egindako lan bikainagatik. Dudarik gabe, Gabonetako derrigorrezko *estampa* bihurtu da Gabonetako kontzertua...

Urazpiko jaiotza

Orain dela zortzi bat urteko ohiturari eutsiz, Boluko **Txipiron elkarreak** urazpiko jaiotza prestatu du elkartean duten arrainontzian. Zazpi espezie ezberdinetako 20 bat arraintxo tropikalez inguratuz, hori dira San Jose, Amabirjina eta Jesus Haurtxoa. Hori bai, ez edozein modutan, ura 28 gradu inguruko tenperaturan egon behar baita.

Jaiotza tropikal honetan

Cousteau bezalako submarinistak eta altxorrak bakarrik falta dira...



ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo, 25 BERGARA

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

Garnish

Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57



Pedro Jose Eguren beheko trenaren lehendabiziko makinaren ondoan, Gasteizen, aurtengo maiatzean.

Beheko tren

Pedro Jose Egurenek bidali digu ezkerreko argazkia. Garai batean Bergaran zehar hiru tren zebiltzan eta orain dela 27 urte, Gabon Zahar egunez, beheko tren geratu egin zen. Argazkian Eguren beheko trenaren lehen makinaren ondoan ikus dezakegu. Tren hau Gasteizetik Gatzagara hasi zen martxan 1889an eta Bergarara 1919an heldu zen. Bergaran hiru *paso a nivel* (San Lorentzon, Ozaitan eta San Prudentzion) eta 5 geltoki omen zeuden: Osintxun, Mekolalden, Bergaran, Labegarietan eta San Prudentzion.

Zertan dihardute ba?



Imanol Bolinaga

bergararrak EAJko senadore autonomikoetako bat izaten jarraituko du, EAJko Euskadi Buru Batzarrak asteartean erabaki zuenez. Eusko Jaurlaritzak hiru senadore izendatzeko eskubidea dauka; aurreko legealdian EAJk bi izendatu zituen (Bolinaga bera tartean) eta PSEk bat. Orain, Gobernu berria osatu ondoren, EAJk beste bi izendatu ditu (Joseba Zubia eta Imanol Bolinaga) eta bestea EA eta PSEren artean erabakiko da. Bolinaga, beste kargu batzuen artean, Bergarako alkate eta Eusko Jaurlaritzaren Turismo sailburuorde izan da aurretik.

BEDELKAREko zozketa

Bedelkar Bergarako Dendarien Elkartek berau osatzen duten 107 komertzioetan erabili ahal izateko 25.000 pezetako 10 bale zozketatu zituen asteartean. Sariak honako hauek izan dira: **Irrene Madinabeitia** (Egizabaren banatutako boletoa), **Nerea Mendizabal** (Elkar), **Carmen Martínez** (Subijai), **Celia Cipriana** (Foto Sistema), **Mari Carmen Nieto** (Casa Herran), **Alonso Akesolo** durangarra (Jantzia), **Marilu Epelde** (Goiara), **Pili Lera** (Onena tindategia), **Agurtzane Aramendi** (Rezola tindategia) eta **Cristina Ibarguena** (Gisasola burdinakidenda). Zozketa irudi bat.



Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

Iñaki Rubio


Itsasgizona bokazioz, 60 urteko donostiar honek 24 urte daramatza gure artean. Orain, ia Chiquito de la Calzadaren parera, telebistako izar bihurtu zaigu; bihar "Genio y figura"ko (Antena 3) saio berezian ikusi ahal izango dugu Miguel bere anaia bikiarekin.

- "Genio" ala "figura"?
- Genioa, letxe txarra daukat eta.
- Umore beltza ala zuria?
- Zuria.
- Zenbat txiste dakizu?
- Ez dakit baina tirada batean 2.000 bota ditzaket.
- Non ikasi dituzu?
- Klean.
- Txiste laburrak ala luzeak?
- Ez oso luzeak.
- Txistetan ondoen noiz?
- Bazkal edo afalostean.
- Txikitan klaseko graziosoa zinen?
- Ez, beranduago hasi nintzen txistekin, Arte eta Ofizio Eskolan.
- Chiquitoren arrakasta ulertzen duzu?
- Bai, inork ez duelako egin, egiten eta egingo berak egiten duena.



"Ez dakit zenbat txiste dakizkidan baina tirada batean 2.000 bota ditzaket. Nik umore sanoarekin barre egiten dut eta estafak, gezurrak eta engainuak haserre jartzen naute. Txikitan peskako patroia izan nahi nuen"

- Ezer kontatzeke barrea sortzen du.
- Zerekin egiten duzu barre?
- Umore sanoarekin.
- Euskadunok umorerik badugu?
- Bai, konfiantza dagoenean.
- Bestela, izatez oso fidagaitzak gara.
- Barre egiteak loditzen al du?
- Bai, satisfakzio guztiek bezala.
- Martes y trece ala Cruz y raya?
- Martes y trece oso gustoko ditut.
- Besterik?
- Gila fenomeno bat da, Eugenio, Quique Camoiras eta El Tricicle antzerkian...
- Faemino ala Cansado?
- Biak. Bata bestea gabe igual ezer.
- Gustoko ez duzun umoristarik?
- Los Morancos.
- Umorezko filme bat?
- Chaplinen "Tiempos modernos".
- Eta aktore bat?
- Danny Kaye.
- Zerk jartzen zaitu umore txarrez?
- Estafak, gezurrak eta engainuak.
- Anaiarekin txistetan egiten duzu?
- Elkarri "Badakizu azkena?" esaten diogu lehenbizi.
- Zelan pasatuko duzu Gabon Zahar eguna?
- Jende atseginarekin egoten saiatuko naiz.
- Errege Magoei zer eskatu diezu?
- Osasuna, pakea, lana eta lanerako gogoak.



POL-POL
TABERNA

☎ 76 07 78

DEPORTIVO
TABERNA

☎ 76 01 51

ANDONI
ARANZABAL
LAZCANO

FINKA ADMINISTRATZAILEA

Barrenkale, 7 1. Eskuma BERGARA
☎ 76 03 46


HARATEGIA- URDAITEGIA

Sebastian Imaz

Bildotsa, txahala eta
oilaskoak

Harane Erreka, 1 ☎ 76 32 67 BERGARA

BONOFOTOA



M. A. ELKOROBEREZIBAR



Nuria Elkoroberezibar

Nuria Elkoroberezibarek jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, joan zen astean egindako galdera berak asmatu baitu. Argazkian agertzen zen etxearen izena galdetzen genizuen eta erantzun zuzena honako hau zen: **Moyua-Zuloaga Jauregia** edo **Rocaverde Markesaren Jauregia**. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Nuria Elkoroberezibari** eman dizkiogu. Zorionak berari eta besteek segi jokatzen!!

Bergarako zein kaletan aurkitu dezakegu ezkerreko iturria eta zein auzotan eskumakoa?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa.: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri asteazken eguerdia baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

ETXEBIZITZA

Osintxun 130 m2ko lokal bat alokatzen da. ☎ 76 47 62.

Pisua salgai San Pedro 21ean. ☎ 76 48 08.

Pisua salgai San Migel kalean. ☎ 76 02 13.

Pisua salgai Zubiaurre 25en. ☎ (945) 28 13 05.

Pisua alokatzen da Matxia-tegin. ☎ 76 46 15.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Pisua salgai Jon XXIII enparantzan. ☎ 76 13 75.

Garajea alokatzen da Koldo Eleizalden. ☎ 76 30 10.

Pisua salgai Artzamendin. ☎ 76 10 55.

Garajea salgai Zurradero 8an. ☎ 76 13 93.

Garajea salgai Kruz Gailastegin. ☎ 76 16 13.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70 (eguerdiz).

Pisu bat salgai Basarten. ☎ 76 25 45 (Javier).

Garajea saltzen da Ibargarai kalean. ☎ 76 44 25.

DENETARIK

Musika bateria salgai. Ia berria. ☎ 76 08 58.

Egurrezko bi butaka tapi-zatu eta guzti salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 12 86.

Karro-denda ia berria salgai. Prezio onean. ☎ 76 41 21.

Cousteauren kolekzioa (36 bideo eta bi liburu) salgai. ☎ 76 31 28.

Lada Niva (SS-AN) eta **Ford Scort (SS-AD)** kotxeak salgai. ☎ 76 00 51.

Volkswagen Corrado kotxea salgai (SS-AG). ☎ 76 38 16 (gauetz).

Renault 19 16v. kotxea salgai (SS-AJ). 53.000 Km. ☎ 76 24 02.

Ford Fiesta SS-AD kotxea salgai. ☎ 76 46 80 (gauetz).

BBT mendi bizikletarako Rond-fork suspentsio oleoneumatikoa salgai. ☎ 76 52 31 (gauetz).

Sega Megadriveko jokoak salgai. 2.000 pezeta. ☎ 76 25 12.

Paseorako **bizikleta** egoera onean salgai. 9.000 pezeta. ☎ 76 16 51.

LANA

Ingeles klaseak. ☎ 76 22 90 (Ainhua).

BBB 3.eko matematikako klase partikularrak hartuko nituzke etxean. ☎ 76 38 71 (Larraitz).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Etxebizitzak garbitzen ditut. ☎ 76 59 47 (Loli).

Etxe konponketak (instalakuntzak etab.) egiten dira. ☎ 76 30 10 (Javi).

BBB eta LH klaseak. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Matematika eta Zientzietako klaseak ematen dira. ☎ 76 06 50.

Fisika eta matematika klaseak. ☎ 76 24 57.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 53 21.

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 55 (Miren, gauetz).

Erizain laguntzaileak zaharrak zainduko lituzke (gauetz ere bai). ☎ 76 47 71.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Matematika finantziario klaseak. ☎ 76 05 43.

Korreo eta Epaitegirako oposizioak gertatzen dira. ☎ 76 08 53 (12.00-16.00).

Euskarazko klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 05 97.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 45 93.

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

San Martin Osasundegia

DERMATOLOGIA
UNITATEA
Garcandia Doktorea

LISERIKETA PATOLOGIEN
UNITATEA
Otazua Doktorea

OBSTETRIZIA ETA
GINEKOLOGIA UNITATEA
Otazua Doktorea

PSIKOLOGIA
UNITATEA
Fernandez Doktorea

ZIRUGIA
UNITATEA
Alberro Doktorea

Ramon Maria Lili, 2 • Tfnoa: 76 59 39 / 72 • Faxa: 76 25 72

ELKAR

ELEKTRAGINTZA



Mota guztietako instalazioak



Erlojutegia
iRUDI
Bitxitegia

Allianz RAS
ASEGURUAK


Zubizaneta

Deco - textil
ZANGUITU
Alfonbrak

ILEAPAINDEGIA
Jean Louis David

**IBARGARAI aldeko
Merkatarien Elkarte
BERGARA**

**ETXEPARE
BiLiNTX**



BI LAGUNENTZAKO BIDAIA
zozketatuko dugu gure bezeroen artean:

Egon
Kafetegia

**LAGUN ARO
RAC**

- CANARIETAra, 8 egunerako eta mantenu osoarekin.
- Edo PAS DE LA CASAra (ANDORRA), 6 egunerako, mantenu osoa eta erremonteak doan.

IZOZTUAK
7 MARES

Flora Ninika

Zozketa 1995ko urtarrilaren 9an izango da.

M2
ERROTULOAK

Prontaprint!
INPRIMATEGIA

J. Larranaga
MULTIOPTICAS

winterthur
ASEGURUAK

Pepelu
ILEAPAINDEGIA

Urcelay
HARATEGIA

URRATS
TABERNA

SAN SILVESTRE

San Silvestre kross herrikoia jokatu da larunbatean, hilak 31, arratsaldeko 5etan Plazan hasita. Hiru maila osatu dira: 14 urtera artekoak, (1.200 metro egin beharko dituzte); 14 urtetik 18ra bitartekoak (3.000 m.); eta 18 urtetik gorakoak, (9.000 m.). Izen ematea doan da eta 4.30etan itxiko da irteera puntuan.

KIROL SARIAK 94

Kirol Zerbitzuak eta Berrigarak herriko kirol elkarte eta kirolariek 1994an egindako lana aitortu eta saritu asmoz aurten ere kirol sariak banatu dituzte. Hiru sari banatu dira: kirolari onenarentzat 50.000 pzt. kirol materialean; Sari berezia, kirol munduan urtetan egindako lanagatik nabarmendu den norbaiti komisio batek emango dion trofeoa eta Kirol elkarterik onenarentzat 50.000 pzt. kirol materialean. 1994ko bergarar kirolaririk onena irakurleen botoek erabakiko dute urtarrilaren 13 eta 20ko aleetan banatu diren txartelen bitartez.

SAUNA ETA SOLARIUMA ASTELEHENETIK ITXITA

Igerilekuetako sauna, solarium eta masaje zerbitzua momentuz itxi egingo da astelehenetik aurrera.

Reala Bergaran.

IV. Gabonetako Txapelketaren barne, atzo 5etan jokatzeko zen Ipintzan gazte mailako Real Sociedad eta Bergararen arteko futbol partidua. Gaur berriz, ordu eta toki berean, Aloña Mendik eta Eibar Urkok neurtuko dituzte indarrak. Bihar arratsaldeko 4retan irabazleen arteko finala jokatu da. Argazkian Realeko taldea, iazko txapelduna. Orduan 1 eta 0 irabazi zioten Bergarari finalerdietan. Ea oraingoan Fernando Oregi entrenatzailearen mutilek errebantxa hartzen duten Realarekin...



Realeko gazte taldea iazko txapelduna izan zen.

Kirol askotako txapelketa datorren astean kiroldegian

Udal Kirol Zerbitzuak antolatuta, Kirol Askotako Txapelketa jokatu da Labegaraietako Kiroldegian urtarrilaren 2tik 5era bitartean. 8 taldek eman dute izena eta guztiek be-

ren trebezia azaldu beharko dute saskibaloian, boleibolean eta futbitoan. Taldeak 5 lagunez osatutakoak dira eta futbitoko partidua atezain barik jokatu dira. Partidua

ziurrenik goizez izango dira baina baliteke neurketaren batzuk arratsaldean jokatzeko.

Pala txapelketa


Bestalde, 14 bikoteek parte hartuko dute urtarrilaren 14tik aurrera Osintxun jokatu den pala txapelketan. 14 bikoteak bi taldetan banatu dira eta behin, liga erara, partidua jokatu gero, talde bakoitzeko lehen bi bikoteek txapeldunen liga jokatu dute. 3. eta 4. postuetan sailkatzen direnek euren artean jokatu dute eta 5., 6. eta 7. postuetan geratzen direnek beste liga bat izango dute.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65



JAUJA KIROLAK

Irizar, 2
☎ 76 14 95

Kiroltasuna nagusi, Ariznoaren aldeko futbol partiduetan

Ezkongabeek sasoi puntu hobean daudela erakutsi zuten

Barre algara ederrak egin zituzten joan zen larunbatean, Ariznoa gimnasia erritmikoko taldearentzat sosak biltzeko antolatutako bi partiduetan ikustera Ipintzan bildutakoek. Tenperatura hotzari umore onez aurre egin zioten futbolearen aritu zirenek eta ikusleek. Guztira, 200.000 pzt. inguru batu ziren eta edurretan astebukaera bat pasatzeko bi pertsonarentzako bidaia, Carlos Etxaniz tokatu zitzaion (316 zkia.).

Ezkongabeak nagusi

Emakumezko zein gizonezkoen partiduetan ezkongabeak nagusitu ziren. Emakumezkoetan, 6 eta 1 izan zen azkeneko emaitza eta golak honako hauek sartu zituzten: Ezkongabeen aldetik, Ana Otek (2 gol), Ainara

Garitanok, Rosa Zafrak eta Esther Barcenillak (gol bana) eta Matilde Fernándezek penaltiz sartu zuen Ezkongabeen gola. Gizonezkoetan, ostera, Luceñok bi eta Va-

llejok sartu zituzten Ezkongabeen golak eta Arbuluk Ezkongabeen gola. Jose Mari Larrañaga "Alaia" izan zen arbitroa eta Jose Mari Larrañaga "Elgoibar" eta Jose Inazio Ilarduia

"Xarti" marrazainak.

Antolatzaileek esker-erak eman nahi dizkie Winterthur, Viajes Aran, Miner Ardoak, Bolintxo okindegia eta Bergara K.E.ri eta ikusleei.



80 bat lagunek jantzi zuten praka motzak herriko gimnasia erritmikoari laguntzeko.

AGENTZIA:
J. ELKORO


Ibargarai, 2 behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

ZURICH



UNIBER

HISPANIA

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

Zapatuan Aizkorrira

O iñ dala hamabost bat urtetik hona Gabon-Zahar egunian Aizkorrira ixotzeko ohituria zabaldu da.

Egualdixa kontuan hartu barik, txanpan botilla bat motxilan sartu eta gora. Txanpana eran ostian datoz kontuak, ze nahiz eta beherutz izen, aldapia ezta makala, ta zartadan bat hartzia samurra da.

Herri bakoitzak bere mendixa euki arren eta bertara ixotzeko ohituria mantendu arren, geruau ta jente gehixau ikusi leike Aizkorriko puntan egun honetan.

Bergaran gañera, hau gutxigi pentsau ezker Urte-Berri egunian Itxumendira juteko aukeria dao eta bertatik Gorlara; saldia, txorixua ta ardu puxkat hartzera.

Erretratuko kuadrillia, 1950 urtian Aizkorrin eon zan, sasoi haetan mendixan asko ibiltzen ziela ta gora. Aurten be, erretratukon bat Aizkorri puntan ikusteko aukeria eongo da.

Aurrian ezkerretik hasi eta eskumara: Ma-




riano Etxaniz, Helio García.

Erdixan: Fermin Nuin, Jose Iñarra, Jesus Uriarte.

Atzian: Andres Barrena (†) eta Modesto Díez.

Felipe Iñarra
Erretratua: Helio García



**GABON
HAUETAN ERE...**



*Luz
Opari Denda
Bergara*

Barrenkale, 27



ederfu

BARRENKALE, 23

☎ 76 29 65

BERGARA

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA,
ZUBIZARRETA, ZULUETA, ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak.

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Haurdunaldiaren kontrola
- Txekoak
- Bularretako gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamendua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak

**GUZTI HAU
ARRASATEN
BERTAN,
URRUTIRAGO
JOAN BARIK**



Zerkaosketa, 17 behea ARRASATE
Tfnoa: 79 20 18

BERGARAKO DENDARIEN ELKARTEAK URTE BERRI ON OPA DIZUE



*Eros itzazu Erregenetako opariak
BEDELKAREko 108 dendetan.*

ALTZARIAK

- BILTOKI
- EDERTU
- GURIDI
- LIZAR
- REMENTERIA

ARTILEAK

- PHILDAR
- PINGOUIN

ELEKTRODOMESTIKOAK

- BILTOKI
- HERRAN ETXEA
- RADIO BERGARA
- SANTOS RTV
- TELKAR
- ZAIAZKO

ERLOJUDENDAK, BITXITEGIAK, OPTIKAK, ARGAZKIDENDAK

- ARANTZA
- ARGAZKI
- ETXEBERRIA
- FOTO SISTEMA
- IRUDI
- KIÑU
- MANSO OPTIKA

FERRETERIAK

- ARDATZA BRIKOLAKETA
- GAZTELU
- GISASOLA
- MUJICA

GOZOTEGIAK

- LARRAÑAGA
- MUJICA

HARATEGIAK

- IGARZA
- IMAZ S.
- LAZPIUR J.
- LETURIA J.L.
- LETURIA J.M.
- REZOLA L.M.
- URZELAI P.
- ZURUTUZA J.M.

JANARIDENDAK

- EROSLE MAZORRIAGA
- HURBIL DIETETIKA
- IZADI DIETETIKA
- KABUTZIA ARRANDEGIA
- LASKURAIN
- PRIMI ARRANDEGIA
- TXUKUN

JANTZIAK

- AGIRRE
- AROA
- BERGARA PIEL
- CRISTINA
- EGIZABAL
- GALLASTEGI
- JANDEN
- LAKET
- LIDE
- MUJICA
- OIHAL
- PORTU
- PRAKAK
- SIASKA

- SUBIJAI
- URKIOLA
- YAZKI
- YAZKI GAZTE
- ZATOIA
- ZUBIKUA

KIROLAK

- AISOR
- BOLINTXO
- ENAITZ
- JAUJA

LENTZERIA / MERTZERIA

- EDURNE
- GANTXEGI
- GRACIAN-AGIRRE
- IGARZA
- ITZIAR
- JUANA ELGETARRA
- MIRARI
- NEREA

- UGALDE ETXEA
- UGARTE

LIBURU, PAPER ETA FOTOKOPIADENDAK

- ELKAR FOTOKOPIAK
- IDATZI
- IKASLE
- IPUIN
- MARCO

LORAK

- NINIKA
- LISLORE

OIHALAK

- ANEZKA
- ARANZABAL
- ARTAZI
- EDEL TAPIZDENDA
- EZPELETA ETXEA
- FERNANDEZ
- MAHER

OINETAKOAK

- AGIRREBEÑA
- ALDASORO
- GALARRETA
- LAZKANO
- LONBIDE
- RETEGI

OPARIAK

- CARMEN GARATE
- GARNISH
- JOLAS
- KILIKA

PENTSUAK

- IBARGUREN

PERFUMERIA, DROGERIAK

- ALGA
- CAMACHO
- EGUILUZ
- GOIARA
- IGARO

SUKALDEKO ALTZARIAK

- HALTZARI
- JAKINA

TINDATEGIAK

- ONENA